

**Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2023/11/23an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 23/11/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko azaroaren 23an, arratsaldeko 17:45ean, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 17:45 horas del día 23 de noviembre de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2023/10/26an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

### **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2023ko azaroaren 15era arte hartutako erabakien berri eman da.

### **3.- KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 13/2023 espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipaturako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28. a) eta 29. artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 13/2023 espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

#### **Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0200.369.934.00.01 2023	BESTELAKO FINANTZA GASTUAK	4.087,50	2.000,00	2.087,50
1 0600.421.335.10.01 2023	APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	68.545,17	8.400,00	60.145,17
1 0100.221.323.40.03 2023	GASA:L.EZEIZA IKASTETXEA	29.701,73	10.000,00	19.701,73
1 0100.470.150.00.01	SURADESA	8.855,96	2.500,00	6.355,96

2023				
1 0100.221.323.30.03 2023	GASA:HAURRESKOLA	19.451,44	7.785,60	11.665,84
	<b>GUZTIRA</b>	<b>130.641,80</b>	<b>30.685,60</b>	<b>99.956,20</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.221.153.20.99 2023	BESTELAKO EROSKETAK:BIDE PUBLIKOAK	11.000,00	10.000,00	21.000,00
1 0400.226.334.00.08 2023	EKINTZAK:KULTURA	35.000,00	6.900,00	41.900,00
1 0100.211.333.10.01 2023	MANTENIMENDUA:KULT UR ETXEA	1.462,50	3.000,00	4.462,50
1 0600.227.491.00.38 2023	ESKORIATZA WEBGUNEA EGUNERATZEA	0,00	3.460,60	3.460,60
1 0600.227.491.00.39 2023	ESKORIATZA IRUDITAN	0,00	7.325,00	7.325,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>47.462,50</b>	<b>30.685,60</b>	<b>78.148,10</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturak egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe

gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboiei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
B20879359	JARDUERA ENPR.	2009	39A0289111103	4.037,08	807,41	4.844,49	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2010	30A0289111204	4.035,72	807,14	4.842,86	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2011	31A0289111203	3.965,55	793,11	4.758,66	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2012	32A0289111202	3.965,55	793,11	4.758,66	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2013	33A0289111201	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2014	34A0289111200	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2015	35A028911120Z	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2016	36A028911120Y	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2017	37A028911120X	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
B20879359	JARDUERA ENPR.	2018	38A028911120W	4.155,90	831,18	4.987,08	KREDITU KOBRAEZIN
<b>GUZTIRA</b>				<b>40.939,30</b>	<b>8.187,85</b>	<b>49.127,15</b>	

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoiei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**5.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarzaten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2023ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**6.- PATES ZUBIA S.L. ENPRESAK INTERES BEREZIKOTZAT EDO UDAL ERABILERARAKO AITORTZEKO ETA HOBARIA JASOTZEKO EGINDAKO ESKAERA.**

2023ko ekainaren 12an, PATES ZUBIA SL-k % 95eko hobaria eskatu zuen Eskoriatzako Aingeru Guarda pasealekuko 17. zenbakian dagoen pabilioian solairuarteak, zamalanetarako kaiak, urbanizazioak, gas-instalazioak eta barne-eraberritzea egiteko emandako lizentziaren ondorioz sortutako EIOZaren kuotaren gainean.

Bere eskaera justifikatzeko honakoa alegatzen du: “ .... Eskoriatzako ekoizpen-planta berritzeko obra bat izatea, enpresa-proiektuaren jarraipena eta datozen 5 urteetan 5 lanpostu berri sortzea bermatuko duena (enplegua % 35 handitzea)”, eta honakoa gehitzen du: modernizazioarekin, industria-jarraitutasuna eta nazioarteko bezero eta merkatu berrietarako sarbidea bermatzen dira, bost lanpostu berri sortzea sustatuz ”.

Udalak honako hobaria du jasota EIOZa arautzen duen ordenantzan:

**5.3.3.4. Interes bereziko edo udal erabilerarako izendatzen diren eraikuntza, instalazio eta obretan (arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo lana bultzatzekoak direla medio) % 95eko hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan.**

*Udalbatzarraren esku dago izendapen hori egitea.*

Kontuan izanik Udalbatzarraren eskumena dela egindako obrak interes berezikitat edota udal erabilerarokotzat jotzea; Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostenaren aurka eta Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, EH BILDUko bi udalbatzarkide abstenituta (Alkatea eta Alaitz Orueta zinegotzia) eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** PATEZ ZUBIA SL-k Eskoriatzako Aingeru Guarda pasealekuko 17. zenbakian dagoen pabilioian solairuarteak, zamalanetarako kaiak, urbanizazioak, gas-instalazioak eta barne-eraberritzea egiteko sustatutako obrak interes berezikotzat edo udal erabilerakotzat direla jotzea, obra horietan enplegua sustatzeko zirkunstantziak daudela jotzen delako.

**BIGARRENA.-** Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kuotan eskatutako % 95eko hoberia AITORTZEA.

BOTO AZALPENA:

\* Josu Ezkurdiak adierazi du bere taldeak batzordean emandako botoa berresten duela eta hoberia onartzearen alde bozkatuko duela, uste duelako herriko enpresentzako laguntza guztiak gutxi direla.

\* Alkateak azpimarratu du hoberi horren araudia garatu behar dela, eta hoberi hori emateko gutxienerako irizpide batzuk ezarri behar direla.

## **7.- DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO BATZORDE INFORMATIBOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, EAJ/PNVko bertaratutako 3 zinegotzik aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**BAKARRA.-** Ondoren esango diren zinegotziak izendatzea Udalaren ordezkari Debagoieneko Mankomunitateko batzorde informatzaileetan:

- Ingurumen batzordea: Titular: Mikel Luengo Gabarain. Ordezkoa: Edorta Zubizarreta Alegria
- Garapen Ekonomiko eta Turismo batzordea: Titularra: Xabier Uriarte Iñurrategi. Ordezkoa: Edorta Zubizarreta Alegria
- Pertsonal batzordea: Titularra: Alaitz Orueta Arseses. Ordezkoa: Edorta Zubizarreta Alegria
- Kontu eta Ogasun batzordea: Titularra: Edorta Zubizarreta Alegria. Ordezkoa: Alaitz Orueta Arrese.

## **8.- GEOTRUKESISTEMA BAT EZARTZEKO ETA MANTENTZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ETA EGIKARITZEKO (PRESTAZIO NAGUSIA) KONTRATU MISTOA: Kontratua ez esleitzeko proposamena.**

Udalbatzarrak 2023ko maiatzaren 11n erabaki zuen administrazio-espeditentea onartzea administrazio-kontratu mistoa kontratatzeke ondorengoak egiteko: geotruke-sistema bat ezarri eta horren mantentze-lanak eta, horrekin batera, kiroldegiko, Luis Ezeizako, Kulunkako, Haur Hezkuntzako eta pilotalekuko eraikinetako galdara-gelak egokitzea, martxan jartzea eta optimizatzea honako prezioan: 1.181.027,99 euro, gehi BEZari dagozkion 248.015,878 euro.

Gaur egun, kontratua esleitu aurreko fasean dago prozedura.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 152.1 artikulua aurreikusten du kontratazio-organoak dagokion deialdia eginga duen adjudikazio-prozedurari uko egiten badio edo kontratu bat ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitatuzaileei jakinaraziko diela, eta Europako Batzordea ere erabaki horren jakinaren gainean jarriko duela, baldin eta kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.

Horretarako, 2017ko SPKLren aipatutako 152. artikulua 2. idatz-zatiak esaten du kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko duela kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan, kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitatuzaileei, egin dituzten gastuak direla-eta, iragarkian edo baldintza-agirian ezarritako moduan edo, bestela, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideak erabiliz.

Kontratua ez esleitzeko arrazoiak "INARLAN Arquitectura e Ingeniería" enpresak 2023ko azaroaren 14an egindako txostenean jasotakoak dira. Txosten hori espeditentean jasota dago, eta haren edukia akordio honen zati da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 152.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoa da prozedura honetan atzera egitea erabakitzeke organo eskuduna, eta espeditente honetan udalbatzarra da organo hori.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzak, EH BILDUKO 7 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Aurrekarietan aipatutako arrazoiengatik ERABAKITZEA geotruke-sistema bat ezartzeko eta horren mantentze-lanak egiteko eta, horrekin batera, kiroldegiko, Luis Ezeizako, Kulunkako, Haur Hezkuntzako eta pilotalekuko eraikinetako galdara-gelak egokitzeke, martxan jartzeko eta optimizatzeke administrazio-kontratu mistoa ez esleitzea. Erabaki hori "INARLAN Arquitectura e Ingeniería" enpresak 2023ko azaroaren 14an egindako txostenean oinarritzen da. Txosten hori espeditentean jasota dago, eta horren kopia enpresa lizitatuzaileei helaraziko zaie.

**BIGARRENA.-** Aurreko erabakiaren ondorioz, KUTXABANK S.A.k TELUR GEOTERMIA Y AGUA S.A.ren alde emandako 14116516-93 zenbakiko abala ezerezteke BAIMENA EMATEA. Abal hori 54.703,37 €-ko zen, eta geotruke-sistema bat ezartzeko eta horren mantentze-lanak egiteko eta, horrekin batera, kiroldegiko, Luis Ezeizako, Kulunkako, Haur Hezkuntzako eta pilotalekuko eraikinetako galdara-gelak egokitzeke, martxan jartzeko eta optimizatzeke administrazio-kontratu mistoa zuzen beteko zela bermatzeko jarri zen.

ESANDAKOAK:

2023/11/23  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

- Kontratua ez esleitzeko proposamena osoko bilkurara ekartzearen arrazoiak azaldu ditu Alkateak, eta, dioenez, ekonomikoak dira. Enpresa lizitatzailerik bakararekin izandako elkarrizketen berri eman du, eta esan du enpresak proposatu duela geotermia bi eraikinetan bakarrik jartzeko aukera, baina, aukera hori ezin dela gauzatu lizitazio berria atera gabe.
- Josu Ezkurdia: guk zehaztapen batzuk egin nahi ditugu, eta are gehiago proiektu hau gure agintalditik datorrela kontuan hartuta. Lehenik eta behin, eta umiltasun osoz diot, uste dut BILDUK ez duela proiektu hau ulertu, egindako txosten teknikoak gai ekonomikoetara mugatzen delako, non errentagarritasun ekonomikoari buruzko gaiak aipatzen diren. Kontratazioa arautzen duten baldintza agiriak eta bere garaian prozesua hasteko idatzitako JUSTIFIKAZIO MEMORIA irakurtzen badira, ez da inoiz gai edo arrazoi ekonomikorik aipatzen, kontratu hori justifikatu zuena "jasangarritasuna" izan zen. Gure ikuspuntutik, kontratu horrek 3 helburu zituen: lehenengoa, jasangarritasuna sustatzea, eta, horretarako, geotermia-sistema bat planteatu zen. Geotermia sistema horri esker, Eskoriatzan energia berriztagarriko sistema bat ezartzea lor liteke; eta hori oso garrantzitsua zen guretzat. Bigarren helburua gasarekiko dugun menpekotasun-maila murriztea zen, izan ere, denok dakigu Eskoriatzan ez ezik Euskadin ere gasarekiko menpekotasun handia dugula. Eta, gainera, Euskal Herriarentzat subiranotasun energetikoa lortu nahi badugu, horrelako sistemak beharko ditugu. Eta hirugarren arrazoi gisa, eta Eskoriatzan zentratuago, Luis Ezeiza ikastetxearekin berokuntza sistema aldatzeko aukera eskaintzea zegoen. Aurreikusitako geotermia-sistemak galdarak aldatzeaz gain, instalazio osoa ere aldatzeko aukera ematen zuen, instalazioak arazo larriak eragin baititu azken urteetan. Hori guztia kontuan hartuta, ez dugu ulertzen zergatik murriztu behar den hain proiektu indartsua arrazoi ekonomikoengatik. Hori esanda, eta gai ekonomikoetan zentratuta, txostena ondo eginda badago ere, esan daiteke jasotzen dituen gas-prezioak egungoak direla, zorionez baxuak, baina nork esan dezake instalazioaren funtzionamenduko 20 edo 30 urteetan gasaren prezioa igoko edo bikoiztuko ez denik? Edo, are gehiago, nork esan dezake European hornidurarik gabe geratu eta Errusiaren, Arabiar Emirerrien edo gure gustuko gobernuak ez dituzten herrialdeen mende egongo ez garenik? Horregatik murriztu nahi genuen gasarekiko menpekotasuna. Gainera, eta gai ekonomikoekin jarraituz, egia da proiektuak 1.300.000 euro inguruko kostua duela, baina lortu da, eta hala aurreikusi genuen, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza oso indartsua, proiektuaren kostuaren % 43 gutxi gorabehera estaltzen duena; hau da, proiektuaren ia erdia, eta beste erdia Eusko

Jaurlaritzaren beste laguntza-programa batekin finantzatu nahi genuen, % 0ko intereseko mailegua emango ligukeena. Gainera, mailegu hori ezarritako sistemarekin lortutako aurrezkiarekin ordain zitekeen. Horregatik guztiagatik, aurkako botoa emango dugu, baina, era berean, Edortari ulertu diodanez, proiektu murriztazago baten alde egin nahi da, eta proiektu hori aztertuko dugu, eta planteatutako gai guztiak betetzen baditu, gure botoa izango du.

- Alkatea: argi dago gu ez gaudela geotermiaren aurka. Beste zenbaki batzuekin beste proiektu bat aurkezten baduzue, aurrera egingo genuke hasiera batean. Emandako mailegua kontsumoan lortutako aurrezkiarekin finantzatuko litzatekeela esan duzu, eta horri dagokionez, ikusi baduzu, txostenean jartzen du urteko aurrezkiak 45.000 euro ingurukoa izango litzatekeela, eta emandako mailegua zazpi urtean itzuli beharko balitz, urtean ordaindu beharreko kopurua, gutxienez, 107.000 euro ingurukoa izango litzatekeela. Eta gasari dagokionez, prezioa baxua da orain arte, eta zuk esan duzun bezala, ez dakigu zer gertatuko den hurrengo urteetan, agian baxua izaten jarraituko du, agian igo egingo da; eta kontua da zenbakiren batekin baloratu behar dugula, eta etorkizunean zer gertatuko den ez dakigunez, egungo prezioekin baloratu dugula.
- Josu Ezkurdia: dirulaguntza eskatu zenean, jarduera oso epe laburrean gauzatzearen baldintzapean jaso zen. Ez dakit epe hori kontuan hartzen duzuen eta baldintza hori bete ahal izango den proiektu berria idatzi, lizitazioa atera eta obrak exekutatu behar baldin badira. Hori esaten nuen kontuan izan dezazuen, pena handia izango litzatekeelako 500.000 euroko dirulaguntza galtzea. Besterik gabe.
- Alkatea: 500.000 euro dira, baina gero Udalari gastatzeko eskatzen zaizkionak 700.000 euro dira. Gastatu behar duguna askoz gehiago da. Azkenean, arrazoi ekonomikoek bultzatzen gaituzte proposamen hori egitera. Mantentze-lanak sartzen ez baditugu, 15 urte beharko lirake inbertsioa berreskuratzeko, eta mantentze-gastuak sartzen baditugu, 25 urte beharko lirake. Orduan, ikuspuntu ekonomikotik ez duela merezi ikusten dugu.

**9.- EUDELEN ESKARIZ ALKATETZAK AUREZKETUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA “AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA” DELA-ETA.**

Udalbatzarrak aho batez erabaki du ondorengo adierazpena onartzea:

AZAROAREN 25erako ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA 2023

2023/11/23  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezina eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskek eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerak ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rola irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek eraso sexualetara eta fisikoetara eraman dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta, Eskoriatzako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarritik.
- Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatzeko/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharri buruzkoak.
- Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak
- Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.
- Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.

## **10.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:02an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 26/10/2023 .

### **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de noviembre de 2023.

### **3.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CREDITOS**

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos N° 13/2023 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Organización y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por unanimidad, el Pleno ACUERDA

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 13/2023 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

#### **Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)**

<b>Partida</b>	<b>Denominación</b>	<b>Crédito inicial</b>	<b>Reducción</b>	<b>Crédito final</b>
1 0200.369.934.00.01 2023	OTROS GASTOS FINANCIEROS	4.087,50	2.000,00	2.087,50
1 0600.421.335.10.01 2023	APORTACIÓN: LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	68.545,17	8.400,00	60.145,17
1 0100.221.323.40.03 2023	GAS: L. EZEIZA IKASTETXEA	29.701,73	10.000,00	19.701,73
1 0100.470.150.00.01 2023	SURADESA	8.855,96	2.500,00	6.355,96

1 0100.221.323.30.03 2023	GAS: HAURRESKOLA	19.451,44	7.785,60	11.665,84
<b>TOTAL</b>		<b>130.641,80</b>	<b>30.685,60</b>	<b>99.956,20</b>

**Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)**

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
1 0100.221.153.20.99 2023	OTRAS COMPRAS: VÍAS PÚBLICAS	11.000,00	10.000,00	21.000,00
1 0400.226.334.00.08 2023	ACTIVIDADES: CULTURA	35.000,00	6.900,00	41.900,00
1 0100.211.333.10.01 2023	MANTENIMIENTO: KULTUR ETXEA	1.462,50	3.000,00	4.462,50
1 0600.227.491.00.38 2023	ACTUALIZAR EL SITIO WEB DEL AYTO. DE ESKORIATZA	0,00	3.460,60	3.460,60
1 0600.227.491.00.39 2023	ESKORIATZA IRUDITAN	0,00	7.325,00	7.325,00
<b>TOTAL</b>		<b>47.462,50</b>	<b>30.685,60</b>	<b>78.148,10</b>

\* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias.

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

**4.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS**

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y HAcienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**2023/11/23**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

NIF	CONCEPTO	AÑO	LIQUIDACIÓN	CUOTA	RECARGO	TOTAL	MOTIVO
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2009	39A0289111103	4.037,08	807,41	4.844,49	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2010	30A0289111204	4.035,72	807,14	4.842,86	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2011	31A0289111203	3.965,55	793,11	4.758,66	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2012	32A0289111202	3.965,55	793,11	4.758,66	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2013	33A0289111201	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2014	34A0289111200	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2015	35A028911120Z	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2016	36A028911120Y	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2017	37A028911120X	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
B20879359	ACTIVIDAD EMPR.	2018	38A028911120W	4.155,90	831,18	4.987,08	CREDITO INCOBRABLE
<b>TOTAL</b>				<b>40.939,30</b>	<b>8.187,85</b>	<b>49.127,15</b>	

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

**5.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la**

**Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al tercer trimestre de 2023.

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**6.- SOLICITUD DE DECLARACION DE ESPECIAL INTERÉS O UTILIDAD MUNICIPAL y DE BONIFICACIÓN CURSADA POR PATES ZUBIA S.L.**

Con fecha 12 de junio de 2023 PATES ZUBIA S.L. ha solicitado una bonificación del 95% de la cuota de ICIO devengado por la licencia concedida para la ejecución de entreplantas, muelles de carga y descarga, urbanizaciones, instalaciones de gas y reforma interior en el pabellón sito en Aingeru Guarda Pasealekua Nº 17 de Eskoriatza.

Alega a los efectos de justificar su solicitud: “ .... Ser una obra destinada a la renovación de la planta productiva sita en Eskoriatza que garantizará la continuidad del proyecto empresarial y la creación de 5 nuevos puestos de trabajo en los próximos 5 años (incremento del empleo en un 35%)” Añade: “..... Con la modernización se garantiza la continuidad industrial y el acceso a nuevos clientes y mercados internacionales fomentando la creación de cinco nuevos puestos de trabajo”

El ayuntamiento tiene contemplada en la ordenanza reguladora del ICIO, la siguientes bonificación:

*5.3.3.4. Gozarán de una bonificación del 95% de la cuota del impuesto las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración.*

*Será el Pleno del Ayuntamiento el órgano competente para resolver sobre dicha declaración.*

Atendiendo que es competencia del Pleno el pronunciarse sobre la declaración de especial interés o/y utilidad municipal de las obras realizadas; en contra del informe emitido por

Secretaría -Intervención y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con la abstención de dos corporativos de EHBILDU ( el alcalde y la concejala Alaitz Orueta) y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, ACUERDA:

**PRIMERO.-** DECLARAR de interés o utilidad municipal las obras promovidas por PATES ZUBIA S.L para la ejecución de entreplantas, muelles de carga y descarga, urbanizaciones, instalaciones de gas y reforma interior en el pabellón sito en Aingeru Guarda Pasealekua N° 17 de Eskoriatza, por considerar que concurren circunstancias de fomento de empleo

**SEGUNDO.-** RECONOCER la bonificación solicitada del 95% de la cuota del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

#### JUSTIFICACIONES DE VOTO:

\*Josu Ezkurdia manifiesta que su grupo ratifica el sentido de voto emitido en la comisión y que votará a favor de reconocer la bonificación porque considera que todas las ayudas son pocas para las empresas del pueblo.

\* El Alcalde incide en la necesidad de desarrollar la regulación de dicha bonificación estableciendo unos criterios mínimos para su concesión.

### **7.- DESIGNACION DE REPRESENTANTES MUNICIPALES EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS DE LA MANCOMUNIDAD DEBAGOIENA**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, la abstención de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUEDA:

**UNICO.-** Designar a los concejales que a continuación se relacionarán representantes del Ayuntamiento en las Comisión Informativa de la Mancomunidad Debagoiena:

- Comisión de Medio Ambiente: Titular: Mikel Luengo Gabarain, Suplente: Edorta Zubizarreta Alegría
- Comisión de Desarrollo Económico y Turismo: Titular: Xabier Uriarte Iñurrategi  
Suplente: Edorta Zubizarreta Alegría
- Comisión de Personal: Titular: Alaitz Orueta Arreses, Suplente: Edorta Zubizarreta Alegría
- Comisión de Cuentas y Hacienda: Titular: Edorta Zubizarreta Alegría, Suplente: Alaitz Orueta Arrese

## **8.- CONTRATO MIXTO DE REDACCIÓN DE PROYECTO, DIRECCIÓN Y EJECUCIÓN DE OBRA (PRESTACIÓN PRINCIPAL) PARA LA IMPLANTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE UN SISTEMA DE GEOINTERCAMBIO: Propuesta de no adjudicación del contrato**

Por acuerdo del Pleno de fecha 11 de mayo de 2023 se dispuso la aprobación del expediente para la contratación del contrato administrativo mixto para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio, optimización en los edificios del polideportivo, Luis Eceiza, Kulunka, Haur Hezkuntza y frontón, por un importe total de 1.181.027,99 euros + 248.015,88 euros de IVA.

A la fecha, el procedimiento se encuentra en fase previa a la adjudicación del contrato.

El art. 152.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-, prevé que en el caso en que el órgano de contratación desista del procedimiento de adjudicación o decida no adjudicar o celebrar un contrato para el que se haya efectuado la correspondiente convocatoria, lo notificará a los candidatos o licitadores, informando también a la Comisión Europea de esta decisión cuando el contrato haya sido anunciado en el «Diario Oficial de la Unión Europea»

A tal efecto, el apartado 2 del citado artículo 152 señala que la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato o el desistimiento del procedimiento podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la formalización. En estos casos se compensará a los candidatos aptos para participar en la licitación o licitadores por los gastos en que hubiesen incurrido en la forma prevista en el anuncio o en el pliego o, en su defecto, de acuerdo con los criterios de valoración empleados para el cálculo de la responsabilidad patrimonial de la Administración, a través de los trámites del procedimiento administrativo común.

Los motivos que justifican la no adjudicación del contrato son los que constan en el informe que ha emitido la empresa "INARLAN Arquitectura e Ingeniería" con fecha 14 de noviembre de 2023, informe que consta en el expediente y cuyo contenido es parte integrante de este acuerdo.

De conformidad con lo previsto en el artículo 152.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-, el órgano competente para acordar la no adjudicación del contrato es el órgano de contratación, que en el presente expediente es el Pleno de la Corporación.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico, y con el voto a favor de los 7 concejales de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO:** DECIDIR la no adjudicación del contrato administrativo mixto para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio, optimización en los edificios del polideportivo, Luis Eceiza, Kulunka, Haur Hezkuntza y frontón. Dicha decisión viene motivada en el informe

emitido por la empresa "INARLAN Arquitectura e Ingeniería" con fecha 14 de noviembre de 2023, informe que consta en el expediente y de cuya copia se dará traslado a las empresas licitadoras.

**SEGUNDO:** Como consecuencia del anterior acuerdo, AUTORIZAR la cancelación del aval N.º 14116516-93 emitido por KUTXABANK S.A. a favor de TELUR GEOTERMIA Y AGUA S.A. por un importe de 54.703,37 € y en concepto de garantía de la correcta ejecución del contrato mixto de redacción de proyecto, dirección y ejecución de obra para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio, optimización en los edificios del polideportivo, Luis Eceiza, Kulunka, Haur Hezkuntza y frontón.

#### INTERVENCIONES HABIDAS:

- El Alcalde explica las razones por las que se trae la propuesta de no adjudicar el contrato, que, dice, son de carácter económico. Informa sobre las conversaciones mantenidas con la única empresa licitadora, que plantea la posibilidad de reducir a dos el número de edificios donde actuar, así como que dicho planteamiento no es posible sin sacar una nueva licitación.
- Josu Ezkurdia: Nosotros si queremos hacer algunas puntualizaciones y más teniendo en cuenta que este proyecto viene de nuestra legislatura. En primer lugar, y lo digo con total humildad, creo que BILDU no ha entendido este proyecto porque el informe técnico emitido se limita a cuestiones económicas, en él se mencionan cuestiones sobre rentabilidad económica. Si se leen los pliegos que rigen la contratación y también la MEMORIA JUSTIFICATIVA en su día redactada para iniciar el proceso, en ningún momento se mencionan cuestiones o razones económicas sino que lo que justificó este contrato es la "sostenibilidad". Desde nuestro punto de vista este contrato tenía 3 objetivos: por un lado, promover la sostenibilidad, y para ello se planteó un sistema de geotermia. Gracias a ese sistema de geotermia se podría conseguir implantar en Eskoriatza un sistema de energía renovable; y eso era muy importante para nosotros. El segundo objetivo era reducir el nivel de dependencia que tenemos del gas, todos sabemos que no solo en Eskoritzza sino que también en Euskadi tenemos una dependencia muy grande del gas. Y además si queremos conseguir una soberanía energética para Euskal Herria necesitaremos este tipo de sistemas. Y como tercer motivo, y ya más centralizado en Eskoriatza,

estaba el de ofrecer al colegio Luis Ezeiza la posibilidad de cambiar el sistema que tienen de calefacción. El sistema de geotermia previsto permitía no solo cambiar las calderas sino que también toda la instalación, que ha estado dando serios problemas durante los últimos años. Teniendo en cuenta todo esto no entendemos porqué hay que reducir un proyecto tan potente por cuestiones económicas. Dicho esto, y centrándome en cuestiones económicas, si bien el informe está bien hecho cabe decir que los precios de gas que recoge son los actuales, que por suerte son bajos, pero ¿quien nos garantiza que en los 20 o 30 años de funcionamiento de la instalación el precio del gas no suba o se duplique?, o incluso ¿quien nos garantiza que nos quedemos sin suministro en Europa y tengamos que depender de Rusia, Emiratos Arabes o de países cuyos gobiernos no son de nuestro gusto?. Es por eso por lo que pretendíamos reducir la dependencia del gas. Además, y siguiendo con las cuestiones económicas, es verdad que el proyecto supone un costo de unos 1.300.000 euros, pero se ha conseguido, y así lo preveíamos, una subvención muy potente del Gobierno Vasco, que cubre aproximadamente el 43% del costo del proyecto; esto es casi la mitad del proyecto y pretendíamos financiar la otra mitad con otro programe de ayudas del Gobierno Vasco por las que obtendríamos un préstamo con un interés del 0%. Además sería posible ir pagando ese préstamos con el ahorro obtenido con el sistema implantado. Por todo esto votaremos en contra, entendiendo a su vez , y así he creído entender a Edorta, que se quiere optar por un proyecto más reducido, el cual estudiaremos y si cumple con todas las cuestiones planteadas tendrá nuestro voto a favor.

- El Alcalde: Está claro que nosotros no estamos en contra de la geotermia. Si presentáis otro proyecto con otros números, en principio echaríamos para adelante. En cuanto a lo que has dicho que con el ahorro conseguido en el consumo se financiaría el préstamo concedido, si has visto en el informe el ahorro anual sería de unos 45.000 euros, y si el préstamo concedido habría que devolverlo en siete años, la cantidad anual a pagar será de unos 107.000 euros como mínimo. Y en cuanto al gas, el precio es bajo a la fecha, y como tú

has dicho, no sabemos que pasará en los próximos años, quizá siga bajo, quizá suba; y el asunto es que tenemos que valorar con algún número y como no sabemos qué pasará en un futuro lo valoramos con los precios actuales.

- Josu Ezkurdia: Cuando se solicitó en su día la subvención, la misma estaba condicionada a que se materializase la actuación en un plazo que era muy corto. No sé si tenéis en cuenta ese plazo y si se va a poder cumplir con dicha condición si se va a redactar en nuevo proyecto, sacar la licitación y ejecutar las obras. Decía eso para que lo tengáis en cuenta porque sería una gran pena perder una subvención de 500.000 euros. Sin más.
- El Alcalde: Son 500.000 euros pero luego los que se exige gastar al Ayuntamiento son 700.000 euros. Lo que tenemos que gastar es mucho más. Al final son motivos económicos los que nos llevan a hacer esa propuesta. Si no metemos el mantenimiento harían falta 15 años para el retorno de la inversión y si metemos los gastos de mantenimiento el plazo sería de 25 años. Entonces vemos que no merece la pena desde el punto de vista económico.

### **9.- PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR LA ALCALDIA A INSTANCIA DE EUDEL: “25 DE NOVIEMBRE, DÍA POR LA ELIMINACION DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2023”.**

Por unanimidad el Pleno ACUERDA aprobar la siguiente declaración:

DECLARACIÓN PARA EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2023

Este 25 de noviembre, día internacional para la eliminación de violencia hacia las mujeres queremos poner la atención en la creciente incidencia de la violencia sexual entre menores como una de las formas violencia que resulta más invisibilizada y normalizada, y que sigue aumentando de año en año.

Según diferentes informes, hasta un 40% de las víctimas de delitos sexuales son personas menores de edad, mayoritariamente niñas y adolescentes. Aumenta también el porcentaje de delitos contra la libertad sexual cometidos por menores de edad. Aunque también han aumentado las peticiones de ayuda especializada, los datos reflejan que las chicas presentan serias dificultades para detectar ciertas manifestaciones de violencia en su propio comportamiento, tanto en el grupo de iguales como en sus relaciones afectivas.

**2023/11/23**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

El movimiento feminista y las expertas apuntan como causas la ausencia de educación sexual de calidad con perspectiva de género y la falta de transmisión de los valores sociales adecuados en las familias y entornos escolares. Asimismo, se alerta sobre la difusión entre los menores de mitos y estereotipos de género, así como la sexualización infantil y la iniciación sexual temprana a través de la pornografía, en mayor grado, en las redes sociales de uso habitual. En muchos casos, se detecta además la falta de credibilidad de las víctimas, lo que impide la intervención precoz y reparadora en los casos de abusos y agresiones sexuales a menores.

Como resultado de todo ello, se ha extendido un imaginario distorsionado de relaciones afectivo-sexuales y del rol de hombres y mujeres en las mismas. Se banaliza y legitima el ejercicio de la violencia sexual como forma de dominación sobre las mujeres, sus deseos y sus cuerpos. Los comportamientos más graves pueden derivar hacia las agresiones sexuales y físicas e incluso, en sus formas más extremas, en los asesinatos de mujeres.

Ante todo ello, las instituciones vascas han de promover todas las estrategias y mecanismos a su alcance para que las mujeres y las niñas tengan un desarrollo de vida pleno, en condiciones de libertad y seguridad. En concreto, para que puedan expresar sus deseos, afectos y comportamientos sexuales sin coacciones y violencias, al margen de los estereotipos y mandatos de género.

Los Ayuntamientos, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, son responsables de favorecer las condiciones para una convivencia igualitaria y libre de violencias en los municipios. Por tanto, el Ayuntamiento de Eskoriatza se compromete a:

- Articular/ mejorar/ reforzar la estrategia local de prevención de la violencia machistas disponiendo las estructuras, recursos, servicios o programas para hacer frente a la violencia sexual entre personas menores.
- Habilitar/mejorar la detección y atención precoz de violencias sexuales en el entorno de las víctimas menores a través de los protocolos locales de coordinación
- Diseñar /implementar/y evaluar programas de formación de los profesionales que intervienen con víctimas de violencias sexuales.
- Diseñar/desarrollar/mejorar programas de sensibilización con la ciudadanía, y especialmente madres, padres y profesorado, con las AMPAS, sobre la necesidad de una educación sexual de calidad con enfoque de género.
- Contribuir desde los espacios de educación no formal a desarrollar procesos educativos que refuercen las actitudes contra la violencia machista en menores,

En base a dichos compromisos, se proponen las siguientes acciones:

- Refuerzo de los programas de empoderamiento dirigidos a las niñas y adolescentes sobre la sexualidad, relaciones de pareja, amor romántico, talleres de autodefensa feminista, ...
- Puesta en marcha de intervenciones dirigidas a los niños y chicos para trabajar la afectividad, los modelos relacionales, los modelos de masculinidad, o las estrategias de superación de roles sexistas y la paridad.
- Elaboración de estrategias de prevención y respuesta a la violencia digital, combatiendo también estas nuevas formas de violencia machista.
- Reforzar procesos educativos con menores del municipio a través del programa BELDUR BARIK y otras iniciativas de impulso local.



Asimismo, hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que este 25 de noviembre, se una a las movilizaciones convocadas en sus municipios con motivo del Día internacional para la eliminación de la violencia hacia las mujeres.

#### **10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se producen

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:02 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**